

EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

455/2014 EBAZPENA, apirilaren 10koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Itziar Larrea Arechavaleta andrea Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari lanpostua betetzeko izendatu eta zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko duena.

Aztertu egin da Basurtuko Ospitaleko Erizaintzako zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen urtarrilaren 31eko 166/2014 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2014ko otsailaren 27ko EHAAren (40. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarra aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak <<curriculum vitae>>-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, Itziar Larrea Arechavaleta andrea deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Itziar Larrea Arechavaleta andrea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko erizain-gaibegirale lanpostu funtzionalaren 21784 plazaren jabea dena, Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari lanpostua betetzeko hautatua izan da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.- Itziar Larrea Arechavaleta andrea Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.- Izendapenak ondorioak dituen egunetik aurrera, Itziar Larrea Arechavaleta andrea zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 10a.

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA**JON ETXEBERRIA CRUZ.**